

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Lazkao



Aurkibidea

Udalerria: Lazkao

Sarrera



Gipuzkoako Goierri eskualdeko herria, Aralar mendikatearen magalean kokatua. Hiru auzo nagusi ditu: Sempere, Zubierreka eta Lazkaomendi. Lazkaoko hizkerak Goierriko euskalkiaren ezaugarri gehienak edo denak biltzen ditu. Argazkia: Wikipediatik hartua.

- **Biztanleak:** 5.486
- **Euskaldunak:** %60,04

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **12**
- Zintak: **13**
- Pasarteak: **122**
- Transkribatutakoak: **9**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **91**

Proiektuak

- Antzin eta Urdirozko udalekuen historia
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Goierri Telebista
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen
- Urretxu eta Zumarragako ahotsak

Hizlariak

Joxe Mari Aranburu Arakama (1932)



Joxe Mari, Beasaingo Geltoki kalean jaio zen. Aita ataundarra zuen; eta ama, berriz, zeraindarra. Bi urte zituela, aitaren lan-kontuak medio, Lazkaora joan zen bizitzera. Eskolan, Lazkaoko nazionaletan ibili zen; baina batxilerra ere egin zuen: Beasaingo fraideetan aurrena, eta Tolosako eskolapioetan geroago. Batxilerra bukatu, eta Deustura joan zen zuzenbideko ikasketak burutzera; baina handik urtebetera, osasun-arazoak zirela-eta, ikasketak utzi zituen. Lazkaora itzulitakoan, denda bat ireki zuen eta beneditarrenean euskara batua ikasi ondoren, Goierriko arduradun izan zen Euskaltzaindiako alfabetatze-programan. Berrogei urte inguru zituela, Euskadiko Kutxan lanean hasi, eta bertan aritu zen erretiroa hartu zuen arte. Elkarrizketako egunean, ikastolen sorreraren eta Euskaltzaindiaren alfabetatze-programaren nondik norakoak kontatu zizkigun, besteak beste.

Andres Barandiaran Galparsoro

Lazkaon jaio eta bizi izan da beti. 10 urte zituela aita Gerr Zibilean hil zuten eta garai gogorak bizi izan zituzten. 10 urterekin barberu ofizioa ikasi zuen. Ofizio hau oso ondo etorri zitzaion soldaduzkan pasatu zituen bi urte eta erdietan, barberu eta praktikante modura aritu baitzen.

Mertxe Esnaola Zubeldia (1942)



Lazkaomendi auzoko Lizargarate baserrian jaio zen, sei anai-arrebatatik zaharrena. Aita bertakoa zen eta ama, berriz, Gaintza herritik etorritakoa. Sei urterekin auzoko Lartxai eskolan hasi zen; gero kalekora joan zen, eta Beasaingo karmelitekin bukatu zituen eskolok. Baserrian jende asko bizi ziren, eta Mertxe Oñatiko Garaikoetxea kafetegi-gozotegira joan zen lanera. Bertan hamar urtez lan egin eta gero, Oñatiko Garagaltza Handia baserrira ezkondu zen, bertako Luis Arkauzekin. Bost seme-alaba izan zituzten. Garaikoetxea kafetegiko oporrik gabeko lana eta bezeria bereziari buruz hitz egiten du. Garai hartan Oñatin zeuden tabernak eta beste kontu batzuk aipatzen ditu. Grabazioa egin zen garaian, senarrak eta biek etxe ondoan ireki zuten landetxe bat kudeatzen zuten. Senarra ere egon zen elkarrizketan. Oñatiko euskara darabil gehienbat elkarrizketan.

None Euskal Udalekuak: Lazkaoko topaketa

Euskal Udalekuetan lanean ibilitako gizon-emakumeen oroitzapenak jaso genituen Lazkaon eginiko topaketa honetan.



Elkarriketatutako partaideak: Juantxo Bereziartua, Miren Eztala, Juanjo Aseginolaza, Maritxu Dorronsoro, Martina Barandiaran, Maria Dolores Sukia, Xabier Mendiguren, Manu Barrenetxea, Ixi Mujika, Mila Aldasoro, Imanol Lasa, Juani Arrieta, Xabier Muruamendiaraz, Nekane Eskisabel, Jose Luis Zaldua, Joxe Mari Apaolaza, Miriam Zubizarreta, Karmen Ugalde, Mari Jose Madariaga, Bego Zubizarreta, Maika Zelaia eta Karmele Albisu.

Euskal Udalekuak: sukaldariak



Euskal Udalekuen historia jasotzeko proiektuaren barruan, sukaldari lanetan ibilitako gizon-emakumeen oroitzapenak jaso genituen Lazkaon eginiko mahai-inguru honetan. Joxe Urdangarin, Tere Goikoetxea, Lourdes Usabiaga, Maria Dolores Sukia, Mila Aldasoro eta Maribi Apalategi izan genituen hiztun.

Miren Eztala Arratibel (1933)



Lazkaon jaioa, elkarriketa egiterakoan Pasai San Pedron bizi zen. Zazpi senidetan laugarrena zen Miren. Neskame lanetan ibilia, [Juantxo Bereziartua](#) donostiarrarekin ezkondua. Bi semearen ama.

[Euskal Udalekuei buruzko proiektuan](#) ere parte hartu zuen Mirenek, senarrarekin batera.

Santiago Garmendia Insausti "Don Santiago"
(1921-2013)



Lazkaoko Intxaurrondotxiki baserrian jaio zen 1921ean. Zortzi anai-arreba ziren sendian. Aita Intxaurrondo baserrikoa zuen eta ama Maitz Goenakoa, biak ere Lazkaokoak. Eskola publikoan ibili zen maistra nazional batekin, baina baserriko semea izaki etxeko lanetan lagundu beharrak ez zion beti joaten utzi. 15 urterekin Ordiziako zapatagile baten dendan saltzaile lanetan aritu zen, ondoren Beasaingo tailer batean fresadoran eta baita CAF lantegian ere. Seminarioan jarraitu zituen ondorengo ikasketak eta karrera Gasteizen amaitu ondoren apaizgoan sartu zen, Urretxun, hain zuzen ere. Hirugarren apaiz laguntzaile lanetan aritu zen. Euskal Herritik zein kanpotik, eliz abesbatzak sor zitzan eskaintzak izan zituen, baina berak etxean nahiago zuela-eta, Urretxuko gazteekin triple irakasle hasi zen. Urretxuko bikario izana da. 55 urte pasa ditu elizari lotuta Urretxun, eta ia bertakoa dela esan daiteke, herrian denek ezagutzen baitute.

LAZ-001 Hizlari ezezaguna

Gizon-emakumeak. Emakumea jostuna izan da. Gazterik hasi zen josten ikasten, eta zenbait urtez sastreria batean lan egin ondoren, 20 urterako etxean hasi zen josten, bere kontura. Gizonak mendian egin zuen lan hainbat urtez, eta ondoren morroi izan zen baserri batean. Ezkondu ondoren fabrikari egin du lan.

Joxe Migel Iztueta Kortajarena Lazkao Txiki
(1926-1993)



1926an jaio zen Lazkaomendi auzoko Abaliñe baserrian. Eskolan zortzi urterekin hasi zen eta oso azkar ikasi omen zuen irakurtzen eta idazten. Bederatzi urterekin ikusi omen zituen bertsolariak lehen aldiz, 'Zepai' eta 'Uztapide', hain zuzen ere. Izugarri gustatu eta orduantxe hasi omen zitzaion bertsotarako zaletasuna. 1943an kantatu zuen lehen aldiz plazan, hamazazpi urterekin, 'Basarri' eta 'Saiburu' bertso lagun zituela. Ordutik aurrera ezin konta ahala saiotan parte hartu zuen, bai plazan eta baita txapelketetan ere. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan txapeldun (1964, 1965) eta txapeldunorde izan zen (1950, 1962). Euskal Herriko Txapelketan bigarren izan zen 1965ean, 'Uztapide' ren atzetik. 'Basarri', 'Zepai', Mitxelena, 'Uztapide', Xalbador, Mattin eta beste hainbatekin kantatu zuen.

Mahai-ingurua Lazkaon



2010eko abenduan Lazkaora ezkonduko 3 emakumek mahai-inguruan parte hartu zuten lehenagoko kontuen inguruan hitz egiteko. Eskubitik ezkerrera: Iñaxi Urdanpilleta Iturrioz (Lizartza, 1941); [Rosa Agirre Begiristain](#) (Aia auzoa, Ataun, 1942) eta Pilar Uranga (Berrobi, 1940).

Ines Olano Gaztainaga (1932)



Lazkaoko Komendrariz baserrian jaio zen Ines. Bere aita Zaldibin jaiotakoa zen, baina, hamabi urte zituela, Komendrarizera joan zen bizi izatera. Ama, berriz, Altzagakoa zuen. Eskolara joan bazen ere, baserriko lanetan eman izan du bizia Inesek; eta baserriko bizimoduaren inguruko hainbat kontu aipatu zizkigun elkarrizketan.

Jabier Urria Iriarte (1932)



Jabier Lazkaoko Elozegi kalean jaio zen. Aita naparra zuen, Bianakoa; ama, berriz, Pasaia San Pedrokoa. Aita CAFen lanean hasi zelako joan ziren gursoak Lazkaora bizi izatera. Gaztetan hainbat jardueratan aritu zen; besteak beste, txistua jotzen, igandeetako zinea antolatzen eta tupleak abesten. Ondo ezagutu zuen Lazkaoko kale-giroa.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Baserria

1.1. Aita Ordiziako plazara txerrikumeak gurdian hartuta

- **Hizlaria(k)**: Esnaola Zubeldia, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: LAZ-002/002
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:01:46. **Bukatu**: 00:03:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 - Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera
- **Laburpena**: Etxean beti izan dute ganadua: behiak, idiak, txerriak... Aitak asteazkenero gurdian jaisten zituen txerrikumeak Ordiziako plazara.

Transkripzioa

- Zuek etxien ganaurik eta...?
- Bai, betik gure etxian betik familixia bizi izan da ganauakin. Gu bizi izan

giñan sei behikin, sei seme-alaba, eta, ba, gaiñetik baserrixan itten zana, gauzakin.

- Idirik eta?

- Idixak be bai, karo, idi paria betik.

- Eta ardirik edo?

- Ez, ardirik ez. Ba oilluak eta horreik bai, baiño...

- Txarri ta...

- Bai, horreik bai. Txerrikumak hazten zian. Uaindikan...

- [...]?

- Bai, klaro, txerrikumak. Eta atzo oaindak esaten eon nitzan, gure aitta asteazkenetan, eguaztenetan, faten zan Ordiziara, irixakin, irixak lotu, burdixan jarri txerrikumak, eta han... auzuan, beste bide... burdi-bide... kin Ordizirako plazaa juaten zan asteazkenetan.

- Ta txarrikumak burdixan eruaten zittun?

- Ba, ba, ba, bai.

- Baiña hogetakak ala?

- Hogetakak ez, ba, txertalde bat igual izango zan hamarrekua edo... o beatzikua edo hamabikua. Ez dakit.

- Zeaittik billotsak-eta lehen behintzet astuen eruaten zittuen.

- Ez, ez, ez, zean, burdixan, burkajan.

- Ba, ba, ba, bai.

- Eta gaiñetik tapau, gaiñetik zea eukitzen eben, saria edo...

- Eta beti saltzen zittun danak edo...?

- Bueno, batzutan etxea etorriko zan, beak gura ebena ez otseiñian aginketan, etxea etorten zan. Ta, ba, [ama be] asteazkenetan...

- Ta Ordiziko plazan eoten zan, e?

- Ba, ba, ba, bai, Ordiziko plazaa juaten zan.

1.2. Txerrikumeak saltzen

- **Hizlaria(k)**: Garmendia Insausti, Santiago
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: LAZ-003/019
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:34:04. **Bukatu**: 00:35:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- **Laburpena**: Baserrian txerrikumeak saltzen zizkieten txerri-tratulariei. Txerrikume bakoitzeko sei bat ogerleko irabazten zuten.

Transkripzioa

- Baserri baten ganaduk, behiak eta txerramak izaten zien etxeako eta gero saltzeko eta... E? Txerri... txerri tratalarik etortzen zien; bat ez dakit santanderinoa ez ote zan, bestea Burgoskoa. Horik Ordizin bizi zien ta, hoin tratoa gure ama zanak itten zun zean. Ama zanak itten zun, nola txerriama batek izaten zittun zortzi bat txerrikuma, ezta? Eta hoiek saltzeko [ya] diru mordoxka bat bazan. Ordun, garai hartan, gero gehixeo zan, baiño nik uste det, sei bat duro txerrikuma bakoitze.

- Kobratzen zala?

- Bai, saltzea. Geroxeo... Gero, esaten dizut, ba, handik... hori izan zitteken, izan zittezen, ba, Republika hasi ta gero... Ez al diazu galdetu lehen Republika sortu zan...

- Bai ba.

2. Herria, azpiegitura

2.1. Etxetik herrira joateko bidea

- **Hizlaria(k)**: Esnaola Zubeldia, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: LAZ-002/003
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:03:19. **Bukatu**: 00:04:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Etxetik Ordiziara joateko, ordubeteko bidea zegoen gurdiarekin. Bide ona ezagutu izan du beti beren baserritik herrira joateko. Ama igandero joaten zen herriko mezara oinez, 2 kilometroko bidean. Lehen ez zegoen mezarik auzoko elizan, baina orain bai.

Transkripzioa

- Baserrittarrak han inguruko... karo, zuenetik Ordizira, ba, fanalditxua, ezta?
- Guretik ordu... ordu... bai...
- [...]
- Baiña burdixakin fateko ba igual ordubete, e! Oiangundik bueltan, ordubete bai, e.
- Eta beste basarritar batzuk be...
- Bai, bai, bai, bai klaro, orduan bai.
- Politta izango zan
- Burdixan faten zan.
- Dana bekorotzez beteta ta.
- Eta gaiña guk kalera betik euki duu bide ona, ba, Lazkanora, betik, nik betik ezautu dot izugarrizko bidia. Zabala ez, baiño beti... diputaziñokua zan, eta betki bide ona nik han ezautu dot. Ta gure amandria be faten zan... ama, berriz, goizeko seieta... sei t´erdietako mezetara domekero-domekero, oiñez, bi kilometro.
- Auzoko elizara edo herrira?
- Ez herrira, herrira, herrira.
- A auzuan ez zeukain...
- Baeuken, bageukan. Oain be... oain eoten da mezia, baiño eguardixan. Orduan ez euen mezaik auzuan, baiño oain bai. Eta...
- Oin aldrebes... beste leku batzutan aldrebes pasaitten da ba, ezta?
- Ez, ez, uain badau. Uain eoten da eguardiro domeketan betik eoten da ta jente asko juaten da, gaiña. Auzoko jente asko juaten da. Eta gero Ordizikuak eta Zaldibikuak eta...
- [...]
- Oso politta da lekua, bai, bai, bai, San Juan Ante Porta Latina. Hoi zan e, ba... aprillian zelebraitten da, Sa Prudentziotatik hurrengo igandea.

3. Ohiturak eta bizimodua

3.1. Lazkaon, ahizpa batzuen etxera eskolak ikastera

- **Hizlaria(k):** Garmendia Insausti, Santiago
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** LAZ-003/005
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:08:42. **Bukatu:** 00:10:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Lazkaon, familia baten etxera joaten ziren eskolak ikastera. Batez ere, otoitzak ikasten zituzten. Bi ahizpak erakusten zieten eskola: Pilarrek eta Hilarik. Euskaraz egiten zuten bertan.

Transkripzioa

- Eskola txikin nun ibili ziñen, Don Santiago?
- Lazkaon bertan.
- Lazkaoko eskolan? Herriko eskolan?
- Ez, ez, ez, famili batek etxe bat [zun] hola mutil-koskorak hartu ta... Haiek, ba, gurasok-eta zien arotzak-eta, [partida zean] iten zun lana, baiño, badakizu, han´e bazien, ama, amandrea, osea, amona, eta beste bi alaba eta haiek´e bizi behar zuen. Ordun, nik ez dakit zeiniek zeatu... bultzada hori, bultzada hori zein... bultzakada hori emanda hasi zien. Bestela ez zin hola zeak, kalezaleak, e? Baiño, ba, famili ona bai.
- Eta famili hortan, beaiek eakusten zuen eskola?
- Bai, eskola...
- Oseake zuek beaien etxea juten ziñeten ikastea?
- Bai, bai. Hantxe illaran jarri eta otoitzak ikastea zan, otoitzak. "Aita gurea" esaten gendun ordun, gaizki esaten [degu] guk, "Aita gurea"; "Gure aita zeruetan zerana" e? Eta ho... hori hola...
- Gehienbat errezue itten zenduen?
- Bai, bai. Eta...
- Bai. Zein zan zein zan zuen maestra edo maixue?
- Mais... bi... bi ahizpa, bat Pilar eta [haren] ahizpa Hilari, Hilarik.
- Hilari.
- Hilaria zan baiño Hilari esaten [genion]. Eta [aizu ze ze gauza esan dezun len], euskera han bai, han ez zan /etzan/ beste hitzik, e.
- Beaiiek euskaldunek zien?
- Bu... hoixe! Izagirre. Aitte Bidanikoa zuen eta ama Lazkaokoa.
- A aja. Eta zenbat denbora in zendun han?
- Han, ba... ba bi urtekin-eo hasita. Ni eskola nagusi o eskola... primero ta segundo izango zien ordun, primero izango zan, han zenbat urtekin sartu nintzen? Ba nik uste irakurtzen ikasita juten giñen, pentsatzen det.

3.2. Eskola partikularra

- **Hizlaria(k):** Garmendia Insausti, Santiago
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** LAZ-003/014
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:25:29. **Bukatu:** 00:26:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- **Laburpena:** Lazkaon, Don Vicente Perutxorenera joaten ziren gazteak eskola partikularrak ikastera. Hilean duro bat kobratzen zuen.

Transkripzioa

- E... zan gure txikitako laguna ezkondu ta Lazkaon bizi izan zan gure etxetik gertun eta harek fabrikan taller bat o modelotako taller bat, zuzendaritza beak ibili zun. Hoi inportantea zan. [...] harek ikasi zun. Guk, besteok, ba, gero Lazkaon Perutxori, Don Vicente, Perutxori eskola berezi bat, partikularra esaten giñona, ematen hasi zan, efuneko ordu bat, nahi zutenak. Harek bere irabazpide... pixkat beharra zeuken gerra denporan.

- Haren diru-itturrie hori zan.

- Bai, hoixe.

- Laguntza bat.

- Laguntza. Duro bat hilero.

- Duroa?

- Duroa. Nik musikarako gogoa izan nun umetatik eta gertu gendun musikalari hori, e? Baiño hura... Gero ikusi zonen ni're pixka bat... [...] esanez bezela [...] gero ni hartu nituen apaizgintzako... apaizgaietarako.

4. Familia eta harremanak

4.1. Kaleko umeek errazago topatzen zuten lana fabrikan

- **Hizlaria(k):** Garmendia Insausti, Santiago
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** LAZ-003/013
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:24:17. **Bukatu:** 00:25:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- **Laburpena:** Hamalau urte zituela utzi zuen eskola nazionala eta lanean hasi zen. Kaleko umeak errazago hartzen zituzten lanerako baserrikoak baino.

Transkripzioa

- Eskola e... eskola nazionalak bukatu eta gero, ze ikasketa in zittuzun? Ala lanen hasi ziñen? Nik badakit gazteik hasi ziñela lanen.

- E? Bai.

- Lanen oso gazteik hasi ziñen. Zenbat urtekin?

- Ba ni [...ibili]... nik urte hartan in behar nitun 14 urte eta beste urte bat gehio jarraitu nun eta, ordun, 14 urte in ta gero irten nintzen zeatik... este...

- Eskola nazionaletatik?

- Bai, eskola nazionaletik. Ta lanen hasi nintzen. Eta lan bila neoni jun nintzen. Ordun baserriko umeak ez zeuken holako zerik... ze esango de? tiradi... hainbeste ez [zuten] tiratzen. Baserriko umea hue [han] fabrikatan zeuden bentajak [...] gero gehio irabazi eta zerbait ikasi, ez zuten zeatzen baserrikorik, kaleko umeak. Bai, kaleko umeak beren gurasok, o aitta, herrin bertakoa zuen, Beasain, Ordizia, Lazkao... Ordun, hoiek errezago hartzen zittuzten.

4.2. Lehenengo lanak eta ordainsariak

- **Hizlaria(k):** Garmendia Insausti, Santiago
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** LAZ-003/015
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:26:40. **Bukatu:** 00:28:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena:** Aurrez anaia lanean ibilitako oinetako konponketako denda batean hasi zen lanean. Anaiari sei erreal ordaintzen zizkioten eta berari sei. Denbora gutxi ibili zen han, gero fabrika batera joan zen lanera eta.

Transkripzioa

- Apaizgintza... apaiz izan ziñen garaieko kontu hoiek-eta gero kontatuko dizkiazu, baiño jakin nahi det, nun hasi ziñen lanen?

- Ba beittu, bueno, aurretik anai bat Lazkaon lehenao oiñetako saltzeko denda izan zan eta gero konpondu're bai, eta hura gero Ordizira jun zan. Eta gizajo hura, mutil zaharra, baten batzuk uste zuten [...] lapurrek eta zeak, eta uste zuten diru asko izango zola, hil ta... Hil zuten. Bueno, guk gero... gero [...]. Ordun, nere anaie eraman zun hori... [...] esan zion... eraman zun, ba, pixkat zuzentzea zeak, ba, fakturak eta zeak, ofizinako kontu [...]. Han ez dakit hillabeten batzuk edo, ez dakit bi-hiru hillabete o hola izango zien, eta eguneko ematen zizkion hamar erreal. Pezetatan zenbat dien ba al dakizu? Nola esango zenduke erderaz hamar erreal, jornala, eguneko jornala. Erderaz hori?

- Ia, nola?

- Dos cincuenta. Hamar erreal.

- Don Santiago, eta...

- Eta gero ordun...

- Zuk ere han lana in zendun?

- Bai, itxoin...

- Anaiakin batea?

- Ez, anaie beste fabrika baten ibili zan. [Gaiñea, Donostia aldea jo zon] izeba bat [...] bagendun eta harekin zea... iten zola bere bizimodua edo. Ta...

- Baiña oiñetako konponketa denda hortan zuk in zendun lana?

- Bai, bai, nik gutxi in nun, handik beste fabrika batea [ata] nintzen ni gero. Nik pentsatu nun, ba, aurrez nola izan zan nere anaiena [lan... gauza] hori, hamar erreal... nei're holako zerbaite emango ote zien [pentsaua]. [Ya] asko zan ba. Eta... eta lehenengo ordainketa egin zinean... sei erreal.

- Sei?

- Sei erreal, bai; hamar ez, sei.

- Anaienak ez zittun ordun eman...

- Ez ba, ez ba, ez... holaxe.

5. Ekonomia eta industria

5.1. Bernedon bonbak egiten

- **Hizlaria(k):** Garmendia Insausti, Santiago
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** LAZ-003/017
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:29:55. **Bukatu:** 00:33:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Goierriko lantegiak
- **Laburpena:** Bernedon ibili zen lanean, kanoientzako bonbak egiten. Handik CAF lantegira pasa zen eta han hegazkinetatik botatzeko bonbak egiten zituzten. Bonbak nola egiten zituzten. Espainiako ejerzitoari saltzen zizkieten bonbak. Gerra aurretik ere, Errepublika garaian, hiru bat mila langile zeuden CAFen.

Transkripzioa

- Don Santiago, Bernedon... Bernedoa jun ziñen lanea.
- Bai.
- Eta Bernedon ze taller zan edo ze zerta dedikatzen ziñen?
- Ba ordun gerra den... zea, gerran sartuta zeon ba gure [...] hau eta bestea, bueno, zea esan nahi det, nazionalak eta zeak, eta hoiek [... ein zan], ba, frenten [o behar zuen] beste... bonba... kañoien... kañoientzako bonba zea hoiek, bonba hoiek, botilla bat balitz bezela, hola, luzen.
- Bonba hoiek itten zittuzuen?
- Bai. Eta be... Gero CAFea pasau nitzen eta -"compañía auxiliar-" eta han iten zituen bonbak zeanak, aireplanoz botatzeko.
- Eta nola itten zittuzuen bonbak? Nola? Esplikatu pixkat, bai.
- Ba, zea, danboliña balitz... badakizu [gure] gaztiñak erretzeko danboliñak...
- Bai, danboliñe, bai.
- Bai. Holako tamaño hoi baiño handixegoa [hortxe], e? Eta hura kargatzen zuten... Ta bere zeakin, behar zitunakin. [...] Polborea beharko zon, bai, beste zer gehiago, hari su emateko. Eta hori, zea, guk esaten genion CAFi, fabrika haundin, [CAFen eitten zien].
- Fabrika haundie, bai.
- Eta...
- Hola ezautu izan deu beti Goierrin.
- E?
- Goierrin hala ezautu izan dala, ezta, beti?
- Bai.
- Fabrika haundi.
- Bai. Ezautzen al dezu Goierri, Goierri ezautzen al dezu zuk, ala?
- Bai, bai, ni hala naiz ta.
- A, bai? Goierrikoa?
- Goierrikoa.
- Hoi da poza ematen diazuna! Lazkaokoa ez zea ba izango?
- Beasaingoa, Beasaingoa.
- Mekatxis la porra!
- Santiago, bonbak ai giñen esaten. Nola itten zittuzuen? Danboliñen tamañokok esaten dezu...
- Bai.
- Danboliñ baten tamañokok.

- Bai, bai, zulo [txikik] eta gero espoletak eta zea horik ba [...].

- Baiña nola itten zittuzuen? Danboliña...

- Tx txa...

- ... erako horri ze itten ziozuen?

- Txapea, txapa jarri, ba, bi... e... bi edo gehi... ez dakit nik, hiru bat milimetro-edo hola lodikoa. Eta hura txapa zea borobiltzeko makina bazan, ebakitzeko´re bai, bazan, eta hura [...]. E? Makina hortan geo junta nik uste det zeakin eitten zala, soldadurakin. Eta hortik aurea, ba, beste zerik ez zan. Hoi zan.

- Nora saltzen zittuzuen?

- E?

- Noa saltzen zien?

- Sal... zeai, al ejército español. Ez dakit nik kobrauko zittuen, baiño... zenbat kobrauko zittuen... Kobrauko zuen, bestela pikuta jungo zien erabat. Bueno, garai hartan baiño lehenau, Republikako garaian, fabrika haundin hiru bat milla jotzen zien baziela langillek. E? Eta gero ia beak fabrika´re nola hasi zan beste era batea iten zeak kotxek edo bagoiak edo... ordun ia asko aldatu zan hango zea, jokabidea, hango lanbidea.

6. Politika

6.1. Soldaduak Lazkaora sartu zirenekoa

- **Hizlaria(k)**: Garmendia Insausti, Santiago
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: LAZ-003/023
- **Iraupena**: 0:03:42. **Hasi**: 00:40:11. **Bukatu**: 00:43:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Soldaduak Lazkaora sartu zirenean, dukearen palazioan sartu ziren. Biraoka sartu ziren herrian, Ataundik behera. Lazkaon ez zuten ezer apurtu.

Transkripzioa

- Santiago, gerra, gerra, gerra galdetzen dizut.

- Aber...

- Bai. Zuk... tropak sartu zien garaien Intxaurrondo txikin ziñen?

- Bai.

- Eta nola goatzen zea? Nola sartu zien?

- Ba ba...

- Nola gelditu zan Lazkao?

- Ba hantxe.

- Bonbaik-eta izan zan?

- Ez, dukek palazioa du han, eta, karo, hori aurretik eukiko zuen erabakita, ba, soldaduk ta, zeak, buru dienak. E? Horik hoien zean... ardurapean han sartu zien ta.

- Palazion?

- Bai, palazion, bai. Ta semea´re bai, seme bat, [gaztena hue uste det zala], [...] zea, kargue edo... gradue zula uste det etorri zala eta gero han naparrak eta, txapel gorrik, bai, birauka, birauka Lazkaon sartu. Zuk gogoan al daukezu nola daun zubi bat han erdi... kalen erdi-erdin, erreka... e... Agauntza, han gaiñetik pasatzen dala. Ba han... han... hauntza sartu ta ia beaiek ere bai [...] ikusi in nahi zuten eta ze [berriro] zer esan... [ez dakit

ze esan]. Ni jun nitzen... zea zan hori... ordun Santiago eune, patrón de España, jai izaten zan. E? Bai, este...

- Sartu zien Agauntzan?

- Ez, ez, ez.

- Zubi gaiñetik esan dezu.

- Bai, bai, zubin, bai. Eta Ataundik behera etorrita, eta Lizarrustiko aldapea dana oiñez pasatuta, ez zeuden...

- Etxetaa sartu zien?

- E?

- Zuei Intxaurrondo txikia sartu zitzaizkizuen?

- Ez, ez ez, ez.

- Ez.

- Lehenau izan zan, horren zea esango deu, aditzera emateko edo, Republikako garaian, militarrek [uste det egin] zutela, Españi guztiko ibilaldia eta ordun herritaa etortzen ziren, ba, ekartzen zituen beren zaldik ere bai, zaldik zeanak, nausinak edo kargudunenak, eta gue etxen goatzen naiz bi soldadu nola eon zien. Erdaldunek zien, haiek ez dakit nungoak zien. Gero, ba, Lazkaon sartu zienak ia soldaduik ez zeon oaindikan, hurrengo egunen... bueno, hori zan el veinte... ez dakit ba nik, veinte cuatro, hogeita lau, uztaila. E? Uztaillen hogeita lauen, milla ta hogeta hamasein. O... berrogeta hamasein? Hogeta hamasein. Hogeta ham... berrogeta hamasei gaizki esan det, hogeta hamasei.

- Hogeita hamasei.

- Hogeta hamasei. Eta, bueno, hoiek hor ez zuten denboa asko in, zeatik jun in zien, ba, ta aguro dominau.

- Nola geldittu zan herrie? Lazkao nola geldittu zan?

- Ordun? Lazkaon...

- Txikizioik-edo izan zan?

- Ez, ez, ez, ez.

- Ez zan ezer...?

- Ez, ez. Han Lazkaun bertakoik ez naiz /enaiz/ gogoratzen zerik izan zanik hildakoik, e?

- Ez.

- Beasaiñen... Lazkautik gero bai, kanpoa bialdu zittuztenak bai, kanpoa bialdu zittuztenak bai.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Mezara joan ostean, Beasaina musika-banda entzutera (LAZ-002/005)

Lehen ama herriko mezara joaten zen igandero goizeko seietan. Umeak amandrearekin joaten ziren meza nagusira. Meza ostean, Beasaina joaten ziren, musika egoten baitzen han. Lazkaon ez zen musikarik egoten jaietatik aparte. Beasainen elkartzen zen inguruko herrietako jendea.

2. Lazkaomendiko eskolatik Beasaingo karmelitetara (LAZ-002/007)

Lazkaomendiko eskolan hasi zen ikasten sei urte zituela. Han dotrina euskaraz ikasten zuten, eta Cara al Sol abesten zuten. Gerora herrira joan zen karmelitetara eta han gaztelaniaz ikasi zuen.

3. Etxean "overbooking" eta Oñatira neskame (LAZ-002/008)

Urte askoan etxean 12 lagun bizi izan ziren eta ondo konpontzen ziren elkarren artean. Hainbeste lagun izanda, Mertxe Oñatira joan zen lanera neskame.

4. Eskolara bidean esnea banatzen (LAZ-002/010)

Anaiak eskolara joateko gogoa izaten zuen eta etxean lana egon arren, joatea lortzen zuen. Mertxek beti maistrak izan ditu. Eskolara joateko bidean, esnea banatzen joaten ziren. Eskolara sartzean, astoa kanpoan lotuta uzten zuten.

5. Eskolatik ateratakoan, etxeko zereginak zain (LAZ-002/011)

Goizeko 9etan hasten ziren eskolan, eta larunbat goizetan ere joaten ziren; ostegun goizetan jai izaten zuten. Bazkaltzera etxera joaten ziren. Etxeko lanetan fina zen. Behin amonari patatak ekarri zizkionean, eskaileratan behera erori eta konorterik gabe geratu zen.

6. Arropa garbitzeko egin beharreko ibilaldiak (LAZ-002/012)

Etxean beti ezagutu izan du argindarra eta bide ona; baina urarekin arazoak izan dituzte. Ama herriko garbitegiraino joaten zen etxeko guztien arropak garbitzera; arropa gutxi zeukanean, ordea, errekarara joaten zen. Ura iritsi zenean, amak asko eskertu zuen.

7. Etxeko zereginak; ur-korrontea auzora iritsi zenekoa (LAZ-002/014)

Senideek amari laguntzen zioten etxeko lanekin. Mertxe Oñatira joan ostean jarri zuten auzoan ura. Teilatuko ura aprobetxatzen zuten, baina ez zen etxeko behar guztietarako iristen. Beren etxeko komuna nolakoa zen azaltzen du.

8. Baserriko jeneroa plazara eta plazatik asteko erosketa etxera (LAZ-002/016)

Garia eta artoa egiten zuten etxean. Garia jotzeko makina etxerik etxe erabiltzen zuten. Ahal zuten jenero gehiena saldu egiten zuten plazan. Kaletik gehienbat okela ekartzen zuen amak igandetan, harategiak irekita egoten baitziren.

9. Baserriko otorduak eta garraiobideak (LAZ-002/017)

Asteko erosketa nagusia Ordiziatik ekartzen zen asteazkenetan. Asteguneko jatordu normala etxean baba eta arrautza izan ohi zen. Bakoitzak bere plateretik jaten zuen otorduan. Intxaurrak eta urrak gustura jaten zituzten. Amak etxerako gazta egiten zuen. Auzoko batzuek gurdia zeukaten, eta amandrea haiekin joaten zen mezara. Gurdian 4 bat lagun kabitzen ziren.

10. Auzoko eskolako maistra Tolosatik etortzen zen egunero (LAZ-002/019)

Eskolako maistrak asko aldatzen ziren. Bat Tolosatik etortzen zen, eta eskolaraino iristeko egunero ibilbide luzea egin behar izaten zuen.

11. Oñatira neskame joandakoan, harrera ona egin zioten (LAZ-002/021)

15 urterekin Oñatira joan zen neskame. Oso harrera ona egin zioten han. Oñatira joateko, mojek soinekoa egin zioten. Neskame zenean, zer-nolako lan-baldintza zituen azaltzen du: oporrak, ordutegia...

12. "Señorita" esan ez ziolako kexatu (LAZ-002/024)

Kanpotik jende asko etortzen zen Oñatira. Garaikoetxea kafetegian jende asko egoten zen, eta haietako bezero bat kexatu egin zen "señorita" esan ez ziolako Mertxek.

13. Garaikoetxea kafetegiaren arrakasta (LAZ-002/025)

Garaikoetxea kafetegian bi langile finko egoten ziren; igandetan eta jaietan beste hiru langile egoten ziren. Lehen mahai asko izaten zituzten kanpoan, arkupe dena beteta. Jende pila bat etortzen zen kafetegira, gehienbat baserritarrak karta-jokoan aritzera. Kafetegian oso ondo pasatzen zuten lanean.

14. Garaikoetxeako pastelen ospea (LAZ-002/027)

Garaikoetxea kafetegia eta gozo-denda izan zen. "Pastel peregrinok" ospe ona zuen, nolakoa izaten zen deskribatzen du. Egunero pastelak egiten ziren, baina asteburutarako pastel desberdin gehiago egiten zituzten. Asteburutan neska bat pastelak banatzen aritzen zen.

15. Igande goizetan kafetegia 9etarako ireki behar (LAZ-002/030)

Igandetan goizeko mezara joan ostean, kafetegia garbitu egin behar izaten zuten. Kafetegia noiz ixten zuten azaltzen du. Igandetan 9etarako irekitzen zuten lokala.

16. Igande goizetako martxa kafetegian (LAZ-002/031)

Kafetegiko mahaiak eta aulkiak nolakoak ziren azaltzen du. Kafetegia irekitzerako, barruko zereginak eginda eduki behar zituzten, eta pertsona bat bezeroei arreta emateko prest. Igande goizetan zer zerbitzatzen zuten azaltzen du. Inguruko bermutik onenak ematen omen zituzten kafetegian. Laneko erritmoa eta ohiturak zorrotzak ziren.

17. Kafetegiko lan-baldintza onak (LAZ-002/032)

Kafetegian itxurazko soldata ematen zioten: irabazien %10. Beti zegoen, hala ere, gutxieneko soldata. Gizarte-segurantzaz bazuen berak.

18. Igande arratsaldetan jai tokatzen zitzaionean (LAZ-002/034)

Igande arratsalde batzuetan jai hartzea tokatzen zitzaien. Mertxek jai izaten zuenean, Oñatiko lagunekin irteten zen. Hala ere, ez zuen denbora askorik izaten, 9etarako kafetegira itzuli behar izaten baitzuen. Giro ona zuten lanean.

19. Deban eguzkitan erre zenekoa (LAZ-002/035)

Kafetegira iritsi berri zela, Debara bidali zuten behin. Eguzkitan egoteagatik, hurrengo egunean gorri-gorri zegoen. Kafetegiko bezeroetako batek adarra jo zion orduan.

20. Baba ez entregatzeagatik, saguek hartu (LAZ-002/041)

Gerra ostean beren etxean baba ezkutatu zuten, baina saguek dena zulatu eta birrinduta utzi zuten. Artajorran soldaduek tripa truke laguntzen zioten amari.

21. Irina ehota kamioian ekarri (LAZ-002/044)

Amak labesua egiten zuen. Irina errotatik ehota ekartzen zuten auzokoek kamioiarekin. Araba aldera joaten ziren irin hura ehotzera.

22. Nortasun handiko amona (LAZ-002/046)

Mertxek bere aitona-amonei buruz hitz egiten du. Amonak nortasun handia zeukan.

23. Abadetzarako ikasketak Gasteizko seminarioan (LAZ-003/026)

Abadetzarako ikasketak Gasteizko seminarioan egin zituen. Bertan ere euskara guztiz zapalduta zegoen. Orduan, seminarioan oinarritzko batxilergoa ('bachiller elemental') ikasten zuten. Seminaria joan aurretik Don Jose apaizarekin ikasi zuen latina.

24. Seminaria sartu aurretik musika eta latina ikasi zituen (LAZ-003/027)

Armendariz apaizak animatu zuen Don Santiago seminaria joaten. Amak ez zuen uste egiteko ikasketak amaitzeko gai izango zenik. Seminaria joan aurretik, musikako eskolak eta latinekoak ikasi zituen elizako organistarekin. Hilean hamar pezeta ordaintzen zituen eskolen truke, ikatza banatzen irabazten zuena.

25. Gasteizko seminaria (LAZ-003/029)

Gasteizko seminaria ikastetxe handi bat zen, bere pelotaleku, futbol zelai eta instalazioekin. Don Venancio Iketak latina irakasten zien. Abadetzari zuzendua zegoen seminaria.

26. Seminarioan ilea mozten zien apaizgaiei (LAZ-003/031)

Seminarioan egunero edukitzen zuten latineko eskola. Seminarioan, apaizgaiei ilea mozten zien Don Santiagok. Ordiziako gizon batekin ikasi zuen ilea mozten. Sei txakur handi irabazten zituen ilea moztearen truke. Ilea mozteko makinak erabiltzen zituen, Eibarren eginak.

27. Apaiz egiteko ospakizunak (LAZ-003/033)

Gasteizko seminarioan zeudenean, ostegun arratsaldeetan ordu beteko ibilaldia egiten zuten hiritik. Bost bat apaizgai zeuden seminarioan. Apaizgaiak apaiz egiteko eliz ospakizuna egiten zuten. Gero, 'meza berria' delakoa ospatzen zuten eta familiakoekin bazkaria egiten zuten.

28. Umetatik bertsozale (LAZ-003/039)

Beti gustatu izan zaio bertsogintza. Umetan Uztapide eta Lazkao Txiki bertsolariak ezagutzen zituen. Orduan ferietara joaten ziren bertsopaper saltzaileak. Behin, aita ekarri zizkion bertsopaperak don Santiagori.

29. Etxea eta harategia prezio onean (LAZ-004/003)

Lazkaora etorri zirenean, oso prezio onean lortu zuten etxebizitza eta harategia. Etxea handia zen; beraiek bi anai-arreba ziren.

30. Umetako aisialdia (LAZ-004/005)

Umetako jolasak gogoan ditu: txorro-morro, sagar-lapurreta, txori bila, arrantza, futbola...

31. Ikasketak han eta hemen (LAZ-004/008)

Eskola txikian ikasi zuen Joxe Marik. Askok errezatzen zuten han. 6-7 urterekin eskola nazionalean hasi zen. 14 urterekin, Beasaingo fraideetara joan zen Batxilergoa egitera; geroago, Tolosako eskolapioetara joan zen; eta handik, Deustura, jesuitekin ikastera.

32. Batxilergoa eskolapioetan eta errebalida Valladoliden (LAZ-004/009)

Eskolapioetan batxilergoa ikasi zuen; eta tituluaren errebalida Valladoliden egin behar izaten zuten. Han zer ikasten zuten aipatzen du.

33. Umetan eskolan ikasten zutena (LAZ-004/010)

Ume-umetan, eskolara joaten ziren, baina han errezatu besterik ez zuten egiten. Handik, eskola nazionalera joan zen ikastera. Eskola hartan zer ikasten zuten azaltzen du. Liburuak erosteko dirurik ez zen garai hartan Irakurtzen ikasteko, nola-hala moldatu behar izan zuten.

34. Eskolako ohiturak eta ikuskapenak (LAZ-004/012)

Arbela erabiltzen zuten eskolan. Noizean behin, ikuskapenak izaten ziren, eta ordurako buruz jakiten zuten zer erantzun galderei. Eskolako egun arrunt bat nolakoa izaten zen azaltzen du.

35. Gerra Lazkaotik pasa zenekoa (LAZ-004/013)

Gerra garaian, eskolan ibili zen Joxe Mari. Nafarren tropak herritik pasa zireneko oroitzapena badauka, baina gerrako istorioak entzunda dauzka gehienbat. Haietako istorio bat aipatzen ditu.

36. Gerra osteko dieta (LAZ-004/014)

Gerra ostean, ogi beltza jaten zuten. Fideoa etxe partikularretan egiten zuten. Ogi zuria luxu handia zen garai hartan. Goserik ez zuten pasa; ondo moldatu ziren nola edo hala zerbait jateko.

37. Beasinen ikasten aritu zenekoa (LAZ-004/015)

10-14 urte bitartean, Beasaingo fraide maristekin ikasi zuen. Irakasle kaskarrak omen ziren haiek. Aitak CAFen egiten zuen lan, eta Joxe Marik egunero bazkaltzen zuen harekin.

38. Eskolapioetan oso gustura (LAZ-004/016)

Goi mailako batxilergoa Tolosako eskolapioetan ikasi zuen, 3 urtez. Han, barneko ikaslea izan zen. Oso nota onak lortzen zituen. Oso gustura egon zen Tolosan. Han zer ikasten zuten azaltzen du.

39. Eskolapioetako irakasleak (LAZ-004/017)

Eskolapioetako antolamenduaz hitz egiten du. Irakasle laiko edo erlijiosoen artean aldea zegoen.

40. Deustun ikastera joan zen (LAZ-004/019)

17 urte zituela, Deustura joan zen jesuitekin ikastera. Hango ikasleak familia ezagun eta aberatsetako semeak ziren; alde handiak zeuden ikasleen artean.

41. Deustuko ikasleen arteko aldeak (LAZ-004/020)

Deustun ikasten zebilela, aisialdirako eskaintza ez zen handia; eta jesuitek desberdintasun handia egiten zuten familia aberatsetako ikasleen eta besteen artean.

42. Deustun ikastea: gutxi batzuen esku zeogen aukera (LAZ-004/021)

Joxe Marik goi mailako ikasketak egiteko aukera izan zuen, babesa handik eta hemendik eman baitzioten. Deustuko ikasleak Espainia osotik etortzen ziren.

43. Deustutuik etxera, osasunarengatik (LAZ-004/022)

Osasun-arazoak zirela-eta, Joxe Mari etxera ekarri zuten. Azkenean, ikasketak utzi egin behar izan zituen. Valladoliden izan zenekoa gogoan du.

44. Eskola nazionaleko irakasle izan zenekoa (LAZ-004/023)

Valladolidetik itzuli zenean, eskola nazionaleko irakasle izan zen. Ez zuen zentimorik kobratu lan haren trukean.

45. Beneditarrenean euskara batua ikasten (LAZ-004/024)

1962an, euskara batua ikasten hasi zen beneditarrenean. Elbira Zipitriak erakusten zien beneditarrei.

46. Soldadutzan, analfabetoen irakasle (LAZ-004/025)

Soldadutzan ibili zenean, analfabetoen irakasle izan zen. Orduko oroitzapenak kontatzen du.

47. Euskara batuaren ikasle eta, gerora, irakasle (LAZ-004/026)

Beneditarrenean ikasi zuen euskara batua; eta, gerora, irakasle izan zen. Orduko agiriak erakusten ditu; agiri horiek eskatzen zituen guardia zibilak, norbait euskara irakasten ari zela ikusten bazuten.

48. Euskararen aldeko lan boluntarioa (LAZ-004/029)

Euskaltzaindiaren alfabetatze-programako arduradun izan zen Joxe Mari Goierri. Lan horregatik ez zuen inoiz kobratu izan, lan boluntarioa zen. Lakuntzako lanbide-eskolara ere joaten zen, astean bi egunetan, euskarako klaseak emateko.

49. Euskara erakustearen arriskuak (LAZ-004/031)

Euskarako klaseak emateagatik, beldurra izaten zuten Joxe Mariren etxean. Soldadutzan zegoela, koronelak mehatxatu egin zuen, kartzelara bidaliko zuela esanez. Arrazoia: soldadutzako klaseetan, euskaldunei besteei baino gehiago laguntzea.

50. Komandantea eta guardia zibilak, irakaskuntzan "parte hartzen" (LAZ-004/032)

Soldadutzan, bere nagusia komandantea zen; haren pedagogiaz hitz egiten du. Lakuntzan, lanbide-eskolan, euskarako klaseak ematen zituen; baina guardia zibilen erregistroak izaten zituenenez, natur zientzietako gaztelaniazko liburuak eramaten zituen.

51. Euskararen aldeko lan ezkutua, baina bizia (LAZ-004/033)

Euskarari buruzko hitzaldiak ematen zituzten; baina hori ezin izaten zuten publikoki esan. Jendea gogotsu zebilen ikastolaren mugimenduekin. Behin, Idiazabalen izandako anekdota kontatzen du.

52. Ikastolaren hastapenetako arazoak eta babesak (LAZ-004/034)

Euskarari buruzko hitzaldietan, zer helburu izaten zituzten azaltzen du. Gerora, ikastola diru-gerrarekin lotu zen. Hasiera batean, ikastolak lokaletan izaten ziren. Oargi elkarteak eta fraideek ere babes handia eman zioten ikastolari.

53. Ikastola arautu arteko garaia (LAZ-004/035)

Ikastolaren sorreran, aurkako jarrerak eta mugimenduak egon ziren, eskola nazionalerako irakasleen aldetik gehienbat. Ikastolako hezkuntza jasotzen zuten ikasleek eskola nazionalerako ere ikasten zuten garai batean, hura baitzen hezkuntza arautua. Gurasoak ere joaten ziren ikastolara, gau-eskolara. Giro ona zegoen klase haietan.

54. Euskararen alde, inurriak bezalaxe (LAZ-004/037)

Euskararen alde egindako lana gustura egin zuen Joxe Marik. Garai hartan, bakoitzak bere aldetik egiten zuen ahalegina. Pixkanaka antolatzen joan ziren, denen artean elkarri lagunduz.

55. Euskaltzaindiaren jarreraren bilakaera (LAZ-004/039)

Euskaltzaindiako Aita Lekuona hitzaldia ematera etorri zen behin Beasain aldera. Euskaltzaindiak erabaki zuen alfabetizatze-saila bultzatzea. Euskaltzaindia, pixkanaka, jakintzaren goi mailatik herriarengana gerturatu zen.

56. Euskaltzale jatorrak (LAZ-004/040)

Joxe Marik ezagutu zituen Aita Lekuona eta Aita Villasante. Beste hainbat euskaltzale aipatzen ditu: Rikardo Arregi, Serafin Basauri...

57. Dendari eta irakasle (LAZ-004/041)

Denda bat ireki zuen Joxe Marik; eta, aldi berean, akademia batean klaseak ematen zituen, ikasleak Batxilergorako prestatzeko.

58. Beasain aldera igandetan (LAZ-004/043)

Gazte garaian, dantza soltea egin behar izaten zuten. "Al agarrau" bai, baina "al arrimau" ezin izaten zuten dantzatu. Lazkaoko apaizak ahalegin handiak egin zituen gazteak Beasaina joan ez zitezen. Orduko dantza estiloak aipatzen ditu. Beasainen, zinea izaten zen, eta arratsaldeko plan konpletoa egiten zuten. Neskak eta mutilak aparte ibiltzen ziren.

59. Kongregaziotik irten, eta Oargi sortu (LAZ-004/044)

Gazte garaian, dantza estilo ugari dantzatzen zituzten. Dantza egiteagatik, ordaindu egin behar izaten zuten. Kongregazioak izaten ziren garai hartan. Luistarretatik aldendu zirenek Oargi sortu zuten; elkarte horretan, hainbat eratako planak sortu zituzten aisialdirako, Elizatik kanpo.

60. Tere 30 urte sukaldari udalekuetan (LAZ-010/002)

Tere: hasiera: 1969an Saturraranera joan zen, mutilekin. Neskak Debara joan ziren urte berean. Antolatzaile eta begirale zenbaiten izenak. Uste du lau urte egin zituztela Saturraranen. 1973an Antzin eta Abaigarren hasi ziren. Tere Abaigarren ibili zen harrezkero sukaldari bezala. Duela 13 urte arte ibili da udalekuetan (1969-1999), 30 urtez, beraz. Uste du Mari Karmen Aranbururen bidez lortu zela Abaigarko etxea.

61. Astebururo konponketak egitera (LAZ-010/004)

Joxe: Aste Santua erabiltzen zuten konponketak eta prestaketak egiteko. Eta handik aurrera astebururo jarduten zuten udara arte.

62. Lurdes hamabost urtez sukaldari Bernedon (LAZ-010/006)

Lurdes Usabiaga, Lazkaokoa. Besteak baino geroxeago hasi zen. Bernedo izan zen bere udalekua. 15 urte egin zituen sukaldari lanetan. Larunbatetan Jazinto Setien joaten zitzaien meza ematera. Aurreneko urteetan errekan bainatzen ziren; ura oso hotza zegoen. Gero egin zen igerilekua.

63. Maria Dolores Antzinen sukaldari bederatzi urtez (LAZ-010/007)

Maria Dolores Sukia: jaiotzez zaldibiarra, baina Lazkaon bizi izan da. Bederatzi urte egin zituen Antzinen sukaldari, udalekuaren hasieratik bukaeraraino. Igandetan, umeen gurasoak etortzen ziren bisitan. Igerilekuetara Ollobarrenera joaten ziren. Oso giro ona zeukaten; monitore zoragarriak omen zeuden.

64. Mila Saturraranen, Antzinen eta Urdirotzen (LAZ-010/008)

Mila Aldasoro: Lazkaokoa. Saturraranen hasi zen begirale bezala. Etxea zahartuta zegoelako utzi zen Saturraran; umeak zaintzea oso nekeza zelako ere bai. Gogoan du nola ibili ziren Antzin eta Abaigarko etxeak egokitzen. Antzingo etxea tabakoz beteta omen zegoen. Gero Antzinen sukaldari ibili zen, eta hura bukatzean Urdirotzen. Senarraren zuzendaritzapean, elizari zorua konpondu zioten. Sasoi hartan ama hil zitzaion senarrari, baina ez ziren enteratu eta ez ziren hiletara joan.

65. Ehun eta hogeia hurreko txandak Antzinen (LAZ-010/009)

Maribi: Beasaindik Lazkaora etorri zen bizitzera. 76an hasi zen sukaldari Antzinen. Lau urte egin zituen eginkizun horretan eta beste hiru monitore. Esperientzia aberatsa izan zen. Ume txikiekin egoten zen. Asko izaten ziren, ehun eta hogeia ere bai txanda bakoitzean.

66. Inspektorearen bisita (LAZ-010/013)

Maribi: behin bera eta umeak mendian zirela, inspektorea etorri zen. Senarra zegoen etxean. Paella-ontzi batean ikurrina zegoen marraztuta eta hestuasun handia pasatu zuen, inspektoreak ikusiko zuen beldurrez. Azkenean ez zuen ikusi.

67. Lana leku guztietan, eta poltsikoa astindu beharra, euskararen alde (LAZ-010/015)

Joxe: hurrek herrietan udan bizi zuten erdal giroari aurre egiteko sortu ziren udalekuak. Horretatik sortu zen izena ere: "Euskal Udalekuak". Lana zegoen alde guztietan, udalekuan bertan zein handik itzulitakoan. Eta poltsikoa astindu beharra ere bai. Baina euskararen alde zenez, gustura egiten zuten.

68. Saturrarango gorabeherak (LAZ-010/016)

Tere: lehen urtean hogeia egunerako joan eta berrogeia egin zituen. Elizan zuten jantokia. Lehen urtea zoragarria izan zen, denek denetik egin behar izan zuten. Oporrak pasatzen ari ziren elizgizonak jaten zuten eurekin batera, tartean Bilboko gotzainak. Ondo pasatu zuen. Erosketak egiteko ere ona zen Saturraran, Ondarroa hurbil zuelako. Baina atzera-aurrera gehiegiko lekua zen. Mila: begirale bezala egoteko ez zen leku ona; "bederatzi kontatzen" pasatzen zuen eguna, baten bat galduko zitzaion beldurrez. 71-72 urteak egin zituen, bi azkenak. Tere: lehendabiziko urtea lasaia izan zen.

69. Saturraranen lanean ibilitakoak (LAZ-010/017)

Lanean ibilitakoen hainbat izen: Amaia Arrese (sukaldari); Kari (Terekin batera), andereño Arantxa, andereño Mertxe, Mari Karmen Aierbe. Legorretakoak ere asko. Beste hainbat izen. ARGAZKIA ERAKUSTEN ZAIO KAMERARI.

70. Tresneria eta janaria erosten (LAZ-010/019)

Tere: Gamarra aldetik, Gasteiztik, ekarri zituzten sukalde tresnak: zartaginak, kazuelak eta abar. Elorrioko Eroskira joaten zen janaria enkargatzera. Han egiten zen erosketa orokorra, etxe guztietarakoa.

71. Bilore, Margola, Iribar eta abarren opariak (LAZ-010/021)

Bilore fabrikak garbiketa produktuak ematen zizkieten, eta baita ontziak eta tresneria ere. Arropen garbiketa Amatiñoren enpresan (Eibarko Margola tindategia) egiten zen. Iribar Bilboko atezain ohiak patata ekartzen zien. Hau guztia doan, jakina. Eguneroko gauzak herriko dendan edo Lizarran erosten zituzten Antzin eta Abaigarrerako. Bernedon hiltegi baten egiten zuten erosketa asko.

72. Istripua Beiren (LAZ-010/023)

Beire-n Donostiako mutiko batek min hartu zuen hirugarren pisutik erorita. Koman egon zen arren, onik irten zen. Hurrengo urtean ere etorri zen mutila, eta familiak karamelu poltsa handi bat eramane zuen eskerrak emateko. Beste pare bat gertakizun ekartzen dituzte gogora, baina ez omen zen sekula istripu larririk izan.

73. Etxean bezala jaten zen udalekuetan (LAZ-010/024)

Kafesnea eta txokolatea jaten zen gosaritan. Eguerdian, etxean bezala: garbantzua, arroza, makarroiak... Bigarren plater: almondigak, oilaskoa, txerri-txuleta, arrain izoztua. Salda, haragia tomatearekin... Hamaiketako ere egiten zuten monitore eta sukaldariek.

74. Sukaldeak eta tresneria oso txarrak hasieran (LAZ-010/025)

Sukaldeak eta tresneria oso txarrak ziren hasieran, baina gero hobetuz joan ziren.

75. Haurrak portaera ona normalean (LAZ-010/026)

Haurrak ondo portatzen omen ziren jateko orduan. Behin Joxek logelatik atera zituen lau ume kanpora, zigortuta. Normala omen da 120 umetatik batzuk ez ondo portatzea. Gainera "haizea hartzen dute" elkarrekin.

76. Gibela txapelaren azpian ezkutatu (LAZ-010/028)

Maria Doloresen semari ez zitzaion gibela gustatzen. Ateratzen ziotenean, ogi gainean jarri eta txapelaren azpian ezkutatzen zuen buruan. Bernedoren ez zuten gibelik ipintzen.

77. Antzingo medikua sukaldean bisitan (LAZ-010/029)

Antzingo medikua donostiarra zen eta familiarekin bizi zen herrian. Bazkalaurretik bisita egiten zien sukaldara; jana probatzea gustatzen zitzaion. Ez zuten inoiz janaren kexarik izan. Olioarekin izan zuten inoiz arazoa. Txarra ekartzen zieten, sojazkoa edo.

78. Askorentzat janaria prestatzea ez da zaila (LAZ-010/030)

Erraz ikasten omen da jende askorentzat janaria prestatzen. Oilasko hankekin prestatzen zuten salda.

79. Patatak zuritzeko makina (LAZ-010/031)

Antzinen bazen patatak zuritzeko makina. Aurrerapen handia, batez ere patata erreak edo leka-patatak ipini behar zirenean.

80. Urdirotzen gau-langileen bisita (LAZ-010/032)

Xabierrek dio Urdirotzen ez zegoela patata zuritzekorik. Milak, gaueko langileak ibiltzen zirela Urdirotzen (guardia zibilak). Hozkailua, sua eta beste gauza batzuk harrapatu zizkieten.

81. Giro ona begirale eta sukaldarien artean (LAZ-010/034)

Joxe: giro onaren oinarria euskararen alde lanean ari ziren kontzientzia zen, batetik; umore ona eta parranda giroa, bestetik. Milak gertakizun barregarri bat kontatzen du. Joxek Estepani galdetzen dio ea nora joaten ziren gauez. Lurdesek lorik hartu ezinda egoten zirela semea-eta inguruko festetara joaten zirenean puntaraino betetako autoan. Elkarri ura botatzea, esaterako, oso txantxa ohikoa zen. Larunbatetako afaria parranda handia izaten zen.

82. Udalekuetatik pasatutako jende famatua (LAZ-010/036)

Jende ezaguna begirale edo haur gisa egondakoa: Joxean Kerejeta, Jose Ramon Soroiz, Fermin Aramendi, Juan Kruz Lakasta, Iñaki Eizmendi, Kike Amunarriz, Eguzkitze...

83. Antzinen hasi ziren mantentze lanetan (LAZ-012/004)

Miren Eztala eta Juantxo Bereziartua. Antzinen hasi ziren, mantentze lanetan. Imanol semea ere begirale gisa ibili zen. Gero Urdirotzen ere ibili zen Imanol. Sukaldari ibili ziren urte batean, jendea falta zelako.

84. Antzinetik Urdirotzera (LAZ-012/007)

Miren Eztala eta Juantxo Bereziartua. Antzingo kontratua amaitzen zitzaienez, Urdirozko etxea hartu zuten. Asteburu eta jai egunetan joaten ziren lanera, bi semeekin batera, txandak hasi baino pare bat hilabete lehenago. Semeak gustura joaten ziren.

85. Udalekurako erosketak (LAZ-012/008)

Miren Eztala eta Juantxo Bereziartua. Udalekurako erosketak. Dirua soberan ez eta eskaintza guztien atzetik ibiltzen ziren. Donostiako beraien garajea gordetzen zuten txanda hasi arte.

86. Koltxoi azalak garbitu eta konpontzen (LAZ-012/010)

Miren Eztala eta Juantxo Bereziartua. Koltxoi azalak garbitu eta konpondu behar izaten ziren txandak hasterako.

87. Urdirotzen Juantxok egindako obrak (LAZ-012/012)

Miren Eztala eta Juantxo Bereziartua. Juantxok egindako obrak: goiko solairuko komunak. Estepanek eta Juantxok erabakitzen zuten gehienbat ze obra egiteko beharra zegoen.

88. Komunekin eta ur deposituarekin komeriak (LAZ-012/015)

Miren Eztala eta Juantxo Bereziartua. Behin komuna ataskatu eta gauez Donostiatik konpontzera joan behar izan zuten. Ur depositua askotan urik gabe gelditzen zen.

89. Tuberia lehertu eta dena urez bete (LAZ-012/017)

Miren Eztala eta Juantxo Bereziartua. Negu batean, izozteak tuberia lehertu eta dena urez bete zen.

90. Lehen aldiz begirale Antzinen, 16 urterekin (LAZ-012/019)

Juanjo Aseginolaza. 16 urterekin joan zen lehen aldiz begirale bezala Antzinerara. Oporretara zihoazela uste zuten, baina gogorra izan zen.

91. Antzingo udalekuko bizimodua (LAZ-012/021)

Maritxu Dorronsoro eta Juanjo Aseginolaza. Lo oso gutxi egiten zuten. Esnatzeko abestiak. Abaigarko igerilekuaren inbiritan. Ibilaldiak. Gaubelak. Meza "desberdinak".

92. Herritar eta bizilagunekin harremana (LAZ-012/022)

Maritxu Dorronsoro eta Juanjo Aseginolaza. "Altxor bila" jolasak herritarrekin harremana sortzera eramaten zituen eta haiek "¡ya vienen los vascos!" esaten zuten. Anekdotak bat: gauez txalet bateko igerilekura sartu ziren bainatzera.

93. Urdirotzen Guardia Zibilak sartu zirenekoa (Juanjok kontatua) (LAZ-012/024)

Juanjo Aseginolaza. Gau batean Urdirotzen Guardia Zibila sartu zitzairen etxera.

94. Jaxintok eskatuta, Antzinerara (LAZ-012/027)

M. Dolores Sukia eta Martina Barandiaran. Jaxintok eskatuta joan zen Martina Antzinerara. Egindako obrak. Hasieran ume gutxiago egoten ziren; gero bizilagunaren etxean ere sartu behar haurrak. Jaxinto oso langilea zen.

95. Antzingo herritarrak nola "konkistatu" zituzten (LAZ-012/028)

M. Dolores Sukia eta Martina Barandiaran. Herritarrak hasieran mesfidatiz zeuden, "euskaldun haiek" ezer onik egitera ez zirela joan pentsatuz. Baina giro polita sortzen zuten herrian eta azkeneko "konkistatu" zituzten.

96. Ollobarreneko igerilekua (LAZ-012/030)

M. Dolores Sukia eta Martina Barandiaran. Asteburutan, gurasoen bisitak ekiditeko, irteerak egiten zituzten. Ollobarreneko igerilekura joaten ziren.

97. Rock musika taldearen bisita Urdirotzen (LAZ-012/032)

Xabier Mendiguren. EEBBtako rock talde bat zetorrela kontatu zieten begiraleek haurrei. Iritsi zirenean, umeak aho zabalik gelditu ziren. Halako batean konturatu ziren: begiraleak eurak ziren, mozorrotuta.

98. Beiren eta Antzinen egon zen begirale (LAZ-012/034)

Manu Barrenetxea. Beiren hasi eta gero Antzinen egon zen. Umeak oso gustora egoten ziren eta euskaraz egiten zuten, hori zen garrantzitsuena.

99. Udalekutik bueltan, alfabetatzea erabaki zuen (LAZ-012/036)

Ixi Muxika. Antzinen "gela" hitza ikasi zuen eta orduan erabaki zuen alfabetatzea.

100. Semearen "trikimailuak" jaterako orduan (LAZ-012/038)

Mila Aldasoro. Semearen "trikimailuak" jaterako orduan.

101. JJ apaizari egindako bromak (LAZ-012/039)

Mila Aldasoro. Urdirutzen JJ apaiz zirikatzaileari egindako bromak.

102. Umetan hainbat udalekutan ibilia (LAZ-012/042)

Imanol Lasa. Antzinen ume bezela egon zen. Aurrerago Barrian ere izanda zegoen eta Ihabenen ere bai, Lazkaoko ikastolatik joanda. Han lastoz egindako oheak zituzten.

103. Sukaldariak, denen "amak" (LAZ-012/044)

Juani Arrieta. Antzinen hasierako urtetatik bukaera arte egon zen sukaldari. "Jefa" ospea zuen, denen "ama" bezala zen. Etxerako lan asko ekartzen zuten.

104. Udalekua, bizitzarako esperientzia (LAZ-012/046)

Xabier Muruamendiaraz. Oso gazte izanik haur batzuk zaintzeko ardura eman zitzaion. Orain konturatzen dira ze ondo etorri zitzaion esperientzia hura bizitzarako. Guardia Zibilen istorioa ze heldutasunekin konpondu zuten. Esperientzia oso sakona eta ona. Imajinazioa lantzeko ere asko balio izan zien.

105. Antzingo herritarrekin harremana (LAZ-012/048)

Nekane Eskisabel eta Jose Luis Zaldua. Antzinen hasieran egon ziren arazoak herritarrekin. Herriko festetako komisiok sartzen ziren umeen eguna antolatzeke eta azkeneko lortu zuten harreman ona.

106. Udalekuak bere izakera ezagutzeko asko balio izan zion (LAZ-012/050)

Joxe Mari Apaolaza. Umea zela, asko balio izan zion konturatzeke ze izaera zuen, irekia zela jakin zuen. Euskara desberdinak ezagutzeko ere balio izan zion. Etxera bueltatu zenean negar egin zuen. Urdirutzen begirale egoteak markatuta utzi zuen, nahiz eta leku harrotza izan.

107. Euskal musika udalekuetan (LAZ-012/052)

Joxe Mari Apaolaza. Jaxintok irakatsitako kantak oraindik gogoan ditu. Urdirutzen goizetan jaikitzeke euskal musika ipintzen zieten.

108. Begiraleek ez zeukaten arduraren kontzientzia (LAZ-012/054)

Miriam Zubizarreta eta Karmen Ugalde. Ume talde bakoitzari izen bat jartzen zioten eta gero antzerki batekin aukezpena egiten zuten. "Egun aldrebesa": umeek agintzen zuten. Familia bat moduan zen. Begiraleek ez zeukaten arduraren kontzientzia. Gauetz antolatzen zuten hurrengo eguna. Gereziak lapurtzen gauetz.

109. Gauero abesten zuten abestia (LAZ-012/056)

M. Jose Madariaga, Bego Zubizarreta, Maika Zelaia. Gauero abesten zuten kanta abesten dute: "Udalekua gure etxea da..."

110. Beste udaleku batzuekin konparaketa (LAZ-012/058)

M. Jose Madariaga. Euskal erreferentzia garrantzitsua izan zen beretzat Antzin. Lan mundurako ateak zabaldu zizkion. Beste udaleku batzuekin konparaketa.

111. Ume bezela joan eta gero, begirale (LAZ-012/060)

M. Jose Madariaga eta Karmele Albisu. Burutik ez zitzairen pasatzen dirurik kobratzea. Ume bezela joan eta gero begirale izatera pasatzea kate bat bezela zen. Prestakuntzarik ez izan arren, bazekiten zer egin behar zuten. Borondate ikaragarria zuten. Gaur egun, hainbeste egun ume txikiak udalekuetan uztea, 16 urteko gazte batzuen esku, pasada bat iruditzen zaie.

112. Urdirotzen Guardia Zibilak sartu zirenekoa, Xabierrek kontatua (LAZ-012/063)

Xabier Muruamendiaraz. Guardia Zibilen istorioa: haseran ez zuen sinestu Guardia Zibila zela, bromaz zela uste zuten.

113. Ume batek eskutitzetan gurasoei gezurrak kontatzen zizkien (LAZ-012/065)

Miren Eztala. Ume batek eskutitzetan gurasoei gezurrak kontatzen zizkien. Mojak Urdirotzera joan ziren egia al zen ikustera.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com